


Gure negozio-ereduak funtziona dezan, hau da, aniztasun funtzionala duten pertsonentzako kirol elkarte bat sortzeko, ondorengo baliabideak beharko genituzke: fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak.

Baliabide fisikoak:

- Instalazioak: Durangoko kiroldegiak.
- Bulegoa: Durangoko udaletxeak lokal bat utzi arte, Malenen garajea hasiko gara gauzak prestatzen.
- Kirol materiala: Forum eta Dekathlon enpresek emango dizkiguten material desberdinak, kirol desberdinetan erabiltzeko.



Entrenatzeko konoak		Pinponeko pilotak + palak	
Futboleko baloiak		Errugbiko baloiak	
Saskibaloiko baloiak		Errugbiko arropa egokitua	
Teniseko pilotak + erraketak		Petoak	

- Administrazio materiala: Ordenagailuak, kide bakoitzak berea ekarriko du (arazorik izan ezker, herriko KZ gunean ordenagailu bat eskatuko dugu).

Baliabide intelektualak:

- Elkartea eta egile eskubideak: Elkarte bat izango denez, estatutuak egin beharko dira. Horretarako, lagun abokatu bateri laguntza eskatuko diogu gauza hauek martxan jartzeko.
- Datu- babesak: Administratzaileak sortuko du datu- babesen zerranda. Horretarako, konfidentzialtasun ikastaroa egin beharko du, hau da, Datu Babeseko ikastaroa 30/92 Legearen eta kudeaketa araudiaren arabera.

- Marka eta elkartearen izena GOPAMA izango da. Honek identitate bat emango ditugu eta markari esker ezagutuko digute. Izena patentatuko dugu [148.9€ren truke](#).

Giza baliabideak: Hauek dira gure enpresaren giza baliabideak eta bertan bakoitzaren funtzioak jarriko ditugu ahalik eta zehatzenak izanik:

KIROL ARDURADUNA	Gontzal	Gontzalek hurrekin lan egiten zuen bere ikastolan haurrak entrenatzen beraz, esperientzia horretaz baliatuz gure elkartean hasieran entrenatzaile lanak egingo ditu. Koordinatzailearekin batera lan egingo du. Gizarteratzaile teknikari titulazioa du ere.
GIZARTERATZAILEA	Maria	Gizarteratzaile teknikari titulazioa du. Erabiltzaileen jarraipena egingo du, hauekin harreman zuzena izango du, hauen bakarkako arreta plana diseinatuko du eta bezeroen gustuak ezagutuko ditu gero kirol desberdinak proposatzeko.
ADMINISTRATZAILEA	Pablo	Administratzaile goi mailako lanbide heziketa ikasten duen bitartean, gure enpresan lan egiten du. Batez ere administrazio lanak eta kontratazioak egingo ditu. Gizarteratzaile teknikari titulazioa du ere.
KOORDINATZAILEA	Maidier	Gizarte hezkuntzako perfila eta desgaitasuna eta inklusioa duen masterra dauka. Entrenatzaile eta gizarteratzaileen arteko zubi lana egingo du. Horrez gain lan guztiak ebaluatuko ditu. Gizarteratzaile teknikari titulazioa du.
KIROL ARDURADUNA + AURREZ -AURREKO ARRETA	Malen	Ekintzen antolamenduan eta taldeak dinamizatzen esperientzia dauka begirale titulua daukalako eta honetaz lan egin duelako. Horrez gain, sarreran egongo da bezeroekin hitz egiteko eta informazioa emateko. Gizarteratzaile teknikari titulazioa du.

Finantza baliabideak

Matrikula eta kuota	Matrikula 40€ eta kuota 30€
Durangoko udaletxe ko diru laguntzak	Durangoko udalak ekintzaileentzako diru laguntzak ematen ditu, 49.700€ enpresa sortzeko. Kanpoko errotuluak eta Web guneak euskaraz jartzeagatik diru-laguntzak, 5000€. Diru-laguntza deialdia Durangon kirol jarduerak egiteko, 35.000€.
Bizkaiko Aldundiako diru laguntzak	Entitate onuradun bakoitzak, gehienez, hogeita bost mila euro (25.000) jaso ahal izango ditu.